

noaia



**Artzeren “unibertsoa”,
Potxoenean ikusgai**



PSU
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com



Zatoz eta jantzi kolorez
zure etxe, balkoi zein lorategia!

Era guzietako aukerak oparitzeko!
Garaiko loreak, frutarbolak, loreontziak...

San Esteban auzoa, Usurbil 943 36 22 55



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

☎ **943 36 46 00**

www.lhusurbil.eus

Erdi eta goi mailako zikloak A, B eta D Ereduak

Administrazioa

Elektrizitate-elektronika

Fabrikazio mekanikoa

Ura eta energia
Produktzio zerbitzu eta manten.



Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

AURREMATRIKULA ekainaren 6tik 17ra



Albistea iruditan

GuraSOS taldeak atxikimendu-katea abiarazi du

Gipuzkoa osora hedatu nahi du erraustegiaren aurkako gurasoen mugimenduak kaleratua duen manifesturako atxikimendu biltza kanpaina. Erronka honetarako guztion laguntza eskatzen dute; gutako bakoitzak beste 10 lagun sinadurak biltzea eta hamar pertsona hauetako bakoitzak aldi berean, beste 10 lagunak eskuratzea proposatzen digute. Atxikimendu katea osatu nahi dute modu horretan. Gogoan izan, Zubietan eraiki asmo duten erraustegia geratzea eskatzen duela, guztion eta datozen belaraldien osasunean izango duen eraginarekiko kezkak bildutako guraso taldearen manifestuak. Jasotako sinadurak Foru Aldundiko Ahaldu Nagusi Markel Olanori bideratu nahi dizkiote.

Manifestua sinatu ez duzuenok, noiz-nahi eman dezakezue zuen atxikimendua, gurasos.org atarian sartuta. Bestela, adi, larunbat honetan ospatuko den Ikastola Egunari, bertan ere mahaia jartze-koak dira. Giza-kate egunean ere sinadu-



Hauze da erronkaren muina: "Gutako bakoitzak beste 10 lagun sinadurak biltzea eta hamar pertsona hauetako bakoitzak aldi berean, beste 10 lagunak eskuratzea".

rak biltzen egon ziren. Bi orduko tartean, ia 1.000 atxikimendu lortu zituzten. Bestalde, taldeak kide berriak eskertuko

lituzke. GuraSOSen zure ekarpena egiteko prest bazaude, idatzi komunikazioa@gurasos.org helbidera.

Laburrean

Erria biziberritzeko ekarpen biltza

Oria eta inguruak biziberritzeko zuen ekarpena egiteko aukera duzue inkesta bat beteta. Inkesta, usurbil.eus atarian eskura dezakezue edo paperean, gune publikoetan.

Gidabaimena euskaraz ateratzeko kanpaina

Buruntzaldeko Udalek eta autoeskolak gidabaimena euskaraz ateratzeko kanpaina berria abiatu dute. Azterketa teorikoa euskaraz gaintzen dutenek, 400 euroko saria irabazi ahalgo dute.

San Juan jaiak, ekainaren 23tik 26ra

Aurtengoan, San Juan bezperan hasiko dituzte jaiak Kalezarren. Eta lau egunez luzatuko dira, ekainaren 26ra arte. Eta gero herriko festak; dakizuenek, ekainaren 30etik uztailearen 3ra.

noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria: Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus: Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietia, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Arana, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Imanol Ubeda

Hain makurra da dena

1 936an, Nafarroa nekazal lurraldea zen nagusiki. Baina baziren industria-gune garrantzitsu batzuk. Altsasukoa, esate baterako. Hori dela eta, langile-kontzientzia oso zabaldua zegoen. Langile horietako asko sindikatuetan afiliatuta zeuden. Jose Ubeda Sanchez birraitona epaitegiko langilea eta UGTkoa zen; aitona, Jose Ubeda Apaolaza, tren geltokiko langilea eta CNTko kidea. Altsasun ere bi sindikatu hauen arteko ika-mikak sarritan eman ziren. Langile borroka bideratzeko ikuspuntu ezberdinak zituzten baina frankistei aurre egiteko garaian, desadostasunak alde batera utzi eta elkarrekin borrokatu zuten.

Gerrak ankerrak dira, eta batzuentzat besteentzat baino ankerragoak direla gehituko

nuke. Gure etxeok, behintzat, ibilera oso eskasa izan zuten.

Aitonak Gipuzkoa Batailoiarekin bat egin zuen, Altsasutik Ataun aldera igaro ziren gazte askok egin legez. Gerra bukatu zenean, bere pista galdu egin zen. Eta 36ko desagertuetaoen zerrenda luzean, bat gehiago izan da urtetan.

Birraitonarena ez da samurragoa. Navarra 1936, *de la esperanza al terror* (Altaffaylla Kultur Taldea) liburuan topatu genuen azalpena: "Quizás, para evitar el inconveniente de los enterramientos, en días posteriores se suceden asesinatos en Alsasua con una crueldad desconocida hasta entonces: los detenidos son arrojados, algunos de ellos simplemente heridos, a las simas de Urbasa. Corrieron esta triste suerte Emilio García, Adelino Gil, un vendedor de periódicos

medio ciego y que al parecer confundieron con José Ubeda Sánchez que arrojaron a la sima al día siguiente; Víctor Urquijo, padre de ocho hijos y destacado socialista, al que sacaron de la fábrica de cementos y lo llevaron derecho a la sima".

Victor Urquijo zenaren senideek Altsasutik deitu zidaten aurrereko asteburuan. Aranzadikoek Urbasako Otxoportilloko leizean indusketa-lanak hasiko dituzte la larunbat honetan. Eskertu egin diet abisua. Ea topatzen dituzten, eta amesgaizto hau amaitzen den behingoz. Hori pentsatu duzu telefono deia amaitu duzunean.

36ko gerra bolo-bolo dabil oraindik hedabideetan. Eta egia da, sentibilizazio mailan urrats handiak eman dira. Baina praktikan, gauzak ez dira hainbeste aldatu. Pentsa,

80 urte joan dira, eta indusketa lanak oraindik hastear dira. Aspalditik han egon zitezkeela pentsatu izan bada ere. Orain arte, inork ezin izan al dio lan horri ekin? Nafarroan eman den gobernu aldaketak ahalbidetu ei du dena. Hala izango da. Baina gauza batzuk alderdikierien gainetik behar lukete egon. Zeren egunak badoaz, egunak eta urteak, gero eta zaharragoa da gure izeba, eta gero eta astunagoa zaio hau guztia. Aita berriz, zauri hura itxi ezinik joan zitzaigun iaz.

Funtsean, oso sinplea da izebak eskatzen duena: bere aitona-ren gorpuzkinak isiltasunaren leizetik atera eta etxeokoin batera hilobiratu nahiko lituzke. Duintasunez. Hori baino ez du nahi. Baina oraindik ere, hain makurra da dena.

Imanol Ubeda | Idoia Torregerai | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | Aritz Gorriti

Ika-mika

Errausketarik ez

Hondakinak etxean gaika sailkatu eta egoki bilduta, errefus gutxi sortuko dugu eta ez da erraustu beharrik izango. Gipuzkoan agintari berriek, ordea, bide hori alde batera utzi eta mila milioi eurotik gora gastatu nahi dituzte erraustegia eraikitzeko. Erabaki oso kaltegarria gure osasun eta ondasunarentzat.

Gipuzkoa ekonomikoki ito egingo du egitasmoak. Erraz esaten da mila milioi euro, baina kostata ordaindu.

Garesti. Gipuzkoarrok ordainduko dugu oso osorik, tasa eta zergen bidez, ondorengo hamarkadetan. Eta bada diru hori zertan erabili. Arnasa behar dugu, are gehiago, krisi garaian.

Erraustegiak, gainera, kutsatu egiten du. Osasunarentzako oso kaltegarria den ke eta gai toxikoak isurtzen ditu. Ondorioz, erraustegiaren ondoan bizi direnek minbizia garatzeko arrisku handiagoa izango dute. Hainbat mediku txostenek

egiaztatu dute hori.

Horregatik diogu, burua duenak ez duela etxe ondoan erraustegirik nahi. Eta bihotza duenak, inon ere ez. Osasunaren alde eta errausketaren aurka gaudenak asko bagara ere, lo baldin bagaude azpian harrapatuko gaitu Gipuzkoako Aldundiko agintarien asmo zitalak. Beraz, mugitu zaitez zu ere.

Azkar eta isilean ari dira egitasmoa lantzen, eta konturatu orduko martxan jarriko dute.

Atez ateko bilketarekin ehuneko 80 birziklatzen dugu herri askotan eta eredugarriak gara Europan. Hori da bidea, Zero Zabor, alegia. Etxean egindako ahalegin txikiak onura handia dakarkio denon osasun eta ondasunari. Zabalduta gure etorkizuna hipotekatu eta gure ondorengoena arriskuan jarri.

Jon Altuna

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: ekainak 10. Idatzia ekartzeko azken eguna: ekainak 6.

Hauteskundeak ate joka berriz

Estatuko Aldizkari Ofizialak kaleratu ditu, datozen ekainaren 26ko bozketetara Gipuzkoatik aurkeztuko diren hautagai zerrendak. Herrialde mailan, 11 hautagai zerrenda aurkeztu dira Diputatuen Kongresu berria osatzeko: EAJ-PNV, PP, EHBildu, PSE, PACMA, P-LIB, Ciudadanos, Recortes Cero-Grupo Verde, Elkarrekin Ahal Dugu, PCPE eta UPyD. Bat gutxiago, 10 hautagai zerrenda Madrilgo Senaturako. Aipaturiko guztiak, UPyD izan ezik.



Aste honetan egitekoa zen hauteslekuetan egotea egokituko zaien herritarren arteko zozketa.

Mahaikideen zozketa

Astearte honetan egitekoa zen osoko ohiko bilkuran bestalde, ekainaren 26an Aginagan, Usurbilen eta Zubietan hauteslekuetan egotea egokituko zaien herritarren arteko zozketa egitekoa zen Usurbilgo Udala. Tokatu zaizuenoi, egunotan helduko zaizue jakinarazpena.

Posta bidezko bozka

Gogoan izan bestalde, postaz bozkatu asmo duzuenontzako

Usurbilgo Udalaren argibideok. Eskaera ekainaren 16a baino lehen bideratu dezakezue Correosen. Hala egiten dutenek, "ezin izango dute inolaz ere hauteskunde egunean botoa eman, botoaren bidalketa egin ez dutenek ere ez, nahiz eta eskaera egina izan". Udalaren beste oharra; "martxoaren 1az geroztik Usurbilen erroldatutakoek ezin izango dute Usurbilen bozkatu, baizik eta momentu ho-

rretan erroldatuta zeuden herrian bozkatu beharko dute".

Egutegia

- Ekainak 10-24: hauteskunde kanpaina.
- Ekainak 16: postaz bozkatzeko eskaera egiteko azken eguna.
- Ekainak 22: postaz bozkatzeko azken eguna.
- Ekainak 25: gogoeta eguna.
- Ekainak 26: bozketaren eguna.

EHBilduk eta Podemosek erraustegiaren kalteak aztertzeko batzordea sortzeko eskaera egin dute

Azterketa batzorde hau Gipuzkoako Batzar Nagusien baitan osatzea eskatu dute erakunde honetako talde EHBilduk eta Podemosek, erraustegiak herritarren osasun eta ingurumenerako izan ditzakeen arrisku eta kalteak ebaluatzeko.

Eskaria astelehen goizean erregistratu zuten bi taldeek, Batzar Nagusietan. Ekaineko osoko bilkuran gai honi buruz hitz egitea nahi dute. "Azterketa-batzordearen helburua izango da, ematen dituen ondorioak Gipuzkoako Foru Aldundirako gida izatea, biztanleen osasuna eta ingurumena lehenesten dituen hondakinen kudeaketa-politika diseinatzeko", berri eman dute. Aurreko astean, Rivas Aire Limpio



Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak Batzar Nagusietan eskaintako azalpenen ondoren egin dute eskaera bi indar politikoei.

eta Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak (OEIT) Batzar Nagusietako Ingurumen Batzordean errauste-

giak dakartzan kalteez ohartarazi ostean egin dute eskaera, EHBilduk eta Podemosek.

Errigorako 69 kontserba lote eskatu dira

Amaitu da, Nafarroa hegoaldeko tokiko ekoizpena eta euskalgintza sustatzeko, Errigoraren elkartasun kanpaina berrian eskaerak egiteko epea. Maiatzaren 12tik 24ra arteko tartean, guztira 16 lagun hurbildu ziren NOAUA!ra eta 69 kontserba lote eskatu zituzten. Zazpi jaki genituen aukeran. Produktu lote guztion artean, pikillo piperrek eta zainzuriak izan dute arrakasta gehien.

- Zainzuriak ("El Escolar" eta "Iturri"): 15 pote.
- Potxak ("La Churta" eta "Maria Jesus"): 3 pote.
- Orburuak ("Ebron" eta "Maria Jesus"): 7 pote.
- Barazki-menestra ("Almanaque" eta "Maria Jesus"): 11 pote.
- Pikillo piperrak ("El Escolar" eta "Iturri"): 18 pote.
- Kremak ("Pedro Luis"): 3 pote.
- Tomate frijitua ("Pedro Luis"): 12 pote.

Ekainean banatuko dira

Eskaera bideratu duzuenok, ekainaren 7tik 14rako tartean jasoko dituzue NOAUA!n. Loteon bila etorritakoan egin beharko dira ordainketak. Halere, produktuok jasotzen ditugunean jakinaraziko dizuegu.

Erraustegiaren aurkako sabotaia ekintza

Hiru ezezagunek Zubieta gaineko makroproiektuen guneko hondeamakin matxuratu dute, hondeamakin honen gidatzeko palanka apurtu dute. Argia Aldizkariak eman du gertaeraren berri. Albitarekin batera plazaratu duten bideoan, Zubietan eraiki asmo duten erraustegia, makrokartzela eta industriaguneko lurrag ageri dira, eta bertan, hiru ezezagunek proiektuon eraikuntza lanetarako baliatzen ari diren hondeamakinaren aurkako sabotaia egiten ikusi daitezke.

Gertu Usurbil, txartel berria eskuragarri



Usurbilgo saltokietan ez ezik, udal zerbitzuetan ere txartela baliatzeko aukera izatea. Hori da Gertu txartela sustatu dutenen helburua.

Hainbat udal zerbitzuetarako sarbidea, Hurbilago Elkarteko establezimenduetan erosketak ordaindu, dirua atera edota deskontuak aplikatu eta zozketetan sariak irabazteko aukera emango duen tresna. Hori eta gehiago da, eskaera orain eginda, egun gutxi barru eskuratu ahalko duzuen Gertu Usurbil, Hurbilago Elkartea, Usurbilgo Udala eta Rural Kutxaren arteko elkarlanean sortu den VISA txartel berria.

Hurbilago Elkarteko bazkide zaretenontzat, orain arte zenuen txartela ordezkatzera dator. Lehengo txartela ekaina amaieran desaktibatuko da. Honenbestez, hilabeteko tartea duzue txartel berriko tramitazioa egin eta zaharraz desegiteko.

Erraza da egiten

Hurbilago Elkarteko bazkideek etxean jasoko duzue txartel berria eskatzeko orria datuekin beteta. Nortasun agiri-ko fotokopiarekin gerturatu, egitasmo hau sustatu duten Usurbilgo Udal zerbitzuetara, Hurbilago Elkarteko establezimenduren batera edota Rural Kutxako bulegora. Aipaturiko

GERTU TXARTELA

“Hurbilago Elkarteko kide diren establezimenduetan eginiko erosketak ordaintzeko baliatu ahalko dugu txartela. Baita elkarteak abiatuko dituen kanpainenan, deskontu, zozketa eta bestelako onurak izateko”

dokumentazioa aurkeztuta, egun gutxira jasoko duzue Gertu Usurbil txartel berria. Bazkide ez zaretenok gauza bera egin; eskaera orria bete eta nortasun agiriaren kopiarekin, gerturatu aipatu guneotako batera.

Usurbil nahiz mundu osorako

Txartel berria betirako doakoa izango da. Rural Kutxan aktibatuko beharko den arren, horrek ez du inor kontu zenbaki bat bertan zabalte behartuko. Edozein banketxeetan helbideratu ahalko da eta ohiko VISA txartelen modura, mundu osoan erosketak ordaindu,

edota kutxazainetatik dirua ateratzeko balioko du. Halere, egitasmo honetako sustatzaileek txartel berria aurkezteko aurreko ostegunean Potxoenean egin zuten aurkezpen ekitaldian azaldu zuten, helburu nagusia txartela Usurbilen baliatzea da; Usurbilgo saltoki eta udal zerbitzuetan.

“Giltza funtzioa”

Hurbilago Elkarteko kide diren establezimenduetan eginiko erosketak ordaintzeko baliatu ahalko dugu txartela. Baita elkarteak abiatuko dituen kanpainenan, deskontu, zozketa eta bestelako onurak izateko. Honez gain, giltza funtzioa ere beteko du Gertu Usurbil Txartelak. Udal zerbitzuotarako sarbiderako identifikaziorako balioko du; Oiaro Kiroldegirako, Sutegi udal liburutegirako, Potxoenea kultur gunerako, baita hondakinen larrialdi gunerako, Garbigunerako ere. “Gerora ez da baztertzen txartel bera beste zenbait udal zerbitzu eraikinetarako sarbidea izatea”, Xabier Arregi Usurbilgo Udaleko alkateak aurkezpen ekitaldian adierazi zuenez.

“Gure herriarekin identifikatuko gaituen txartela”

“Herri izaera duen txartela izango da. Usurbildarrok gure herriarekin identifikatuko gaituen txartel bat”, adierazi zuten duela astebeteko aurkezpen ekitaldian. Irudian ere antzematen da. Usurbildarrok eskutik, etorkizunean mundu osoan ezagun egingo dugun txartelak, Dema plazako lurzoruko harrien irudia darama (Maialen Garagarzak eta Joseba Larratxek diseinaturikoa).

“Gertu Txartelak ekarpen handi bat egingo dio herri honen bizitza sozioekonomikoari orokorrean”, adierazi zuen alkateak. Usurbildarrok usurbildarago, eta Usurbil Usurbilago egingo omen du txartel berriak bere esanetan. Herri txartelarekin herrian bertan erosketak egiteko aukera areagotuko da. Ildo horretatik, Hurbilago Elkartetik, egun bazkide ez dituen establezimendu guztiak sare honetan integratzeko ahalegina egin asmo duela adierazi du Igor Gorritik, “sare hau zabalteko joateko”.

Txartela orain eskuratu eta %10eko deskontuez baliatu

Herritarrei txartela eskuratzeko deia luzatu dute: “Animatu herritar guztiak txartel hori eskuratu eta erabili dezaten bertako udal azpiegitura eta komertzioetan”. Txartela orain eskuratzen duzuenok, Hurbilago Elkarteko establezimenduetan %10era arteko deskontuak aplikatuko zaizkizue ekainean. Eta Gertu Txartela aktibatzen duten lehen mila bezeroek, opari bana jasoko dute Rural Kutxan.

Prekarietatearen aurkako astea

Prekarietatearen aurkako borroka astea deitu du LAB sindikatuak egunotarako. Larunbatean Bilbon deitua zuten manifestazioarekin abiatu ziren ekimenok. Aste honetan zehar hitzordu gehiago deitu dituzte eskualdean, tartean Usurbilen.

“Egunak joan eta egunak etorri, lantokietan bizi dugunak ez du itxura onik ez eta hoberrantz egingo duenaren joerarik ere. Izan industriako soldatapeko langile, ingeniari, lantoki txikiakotako aprendiz, kale garbitzaile edo autobus gidari. Langileria osoa barnebiltzen du bere baitan prekarietatearen sareak. ETTak, behin-behinekotasuna, lanaldi partzialak, praktiketako kontratuak, azpikontratak, soldata baxuak, hitzarmenik aplikatzen ez zaien langileak, langabezia egoerak, EREak...”, gogorarazi zuten Buruntzaldeko LAB sindikatuko kideek, aurreko ostiralean Lasarte-Oriako Okendo plaza ondoan egin zuten agerraldian.

Egoeraz, “nazkatuta”

Egoera honekin nazkatuta daudela diote. “Kokoteraino ordu extrataz, mugarik gabeko lanaldietaz, pentsio duin bat ez izateaz, diskriminazioaz, mehatxuek, lana ez izateaz, lan baldintza kaxkarrez, istripuez... Bote-re ekonomikoak, patronalak, eta eserleku erosoetan dauden hainbatek egoera hau



Astelehenean elkarretaratzera egin zuten Mikel Laboa plazan. Ostiralerako kotxe karabana iragarri dute: 10:00etan abiatuko dira Ingemar lantegitik.

BURUNTZALDEKO LAB

“Norbere baitatik hasita, langabetuen asanbladetatik, lantokietatik, kaletik, auzotik, herritik, bultzatu behar ditugu geure eskubideen aitortza, lan baldintzen hobetzea eta bestelako eredu bateranzko bidea”

iraunaraztea besterik ez dute buruan, langileria prekarizatu eta sumiso baten gainean, haien poltsikoak gerroz eta gehiago betetzen jarraitzeko bidean eta eredu kapitalista-patriarkal hau mantentzeko asmoz”, salatu dute.

“Bestelako eredu bateranzko bidea”

Egoera honen aurrean zer egin eta non eragina badela gogorarazten dute. Borrokarako espazio berriak eraiki behar direla irizten diote, “norbere baitatik hasita, langabetuen asanbladetatik, lantokietatik, kaletik, auzotik, herritik, bultzatu behar ditugu geure eskubideen aitortza, lan baldintzen hobetzea eta bestelako eredu bateranzko bidea. Eskuz esku, elkarlanean jorraturuz, borrokatuz, indartzuz eta lortuz. Bideak batuz”.

Horretarako antolatu dute borroka astea, pobrezia eta prekarietateari aurre egin eta lana eta aberastasuna banatzearen alde. Deitu dituzten ekimenotan parte hartzera deitzen dute jendartea.

Prekarietatearen aurkako Borroka Astea

Ekainak 2, osteguna

19:00 Mahai ingurua, Hernaniko Biteri kultur etxean. Parte hartzaileak: LAB, Ernai, Bilgune Feminista eta Sortu.

Ekainak 3, ostirala

10:00 Kotxe karabana Ingemar lantegitik abiatuta. 19:30 Manifestazioa, Lasarteko Okendo plazatik abiatuta.

Deitzailea: LAB sindikatua.

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA



Orbeldi Dantza Taldeak piztuko du jaien hasierako suziria

JAI EGITARAUKO DISEINU LEHIAKETAN INTZA SALSAMENDI NAGUSITU DA



Igandean Dantzari Txiki eguna ospatu zen Lasarte-Orian. Irudian dira Orbeldiko gazteak. Argazkia: Orbeldi.

Festei hasiera nork eman-go dion ere hautatu du Jai Batzordeak. Emaillez nahiz Potxoenean, Sutegi udal liburutegian eta Kiroldegian jarritako ontzietan utzi zitezkeen proposamenak. Ekarpen mordo jaso dute; bai kopuru aldetik, anitza baita proposatu diren izenen ikuspegitik ere. Baina bat aukeratu behar eta Orbeldi Usurbilgo Dantza Taldeak izan du babes gehien. Herriko dantzariak izango dute datozen jaiak abiatzeko ohera. Zorionak!

Orbeldikoak, Lasarte-Oriako Dantzari Txiki Egunean

Igandean Lasarte-Orian ospaturiko Dantzari Txiki Egunean parte hartu zuten Usurbilgo Orbeldi Dantza Taldeko haurrek ere. Goizean zehar plazaz plaza euren dantzarako abilezia erakutsi zuten, eta arratsaldean, Michelingo fron-

PARTEHARTZE HANDIA

“Ekarpen mordo jaso dute; bai kopuru aldetik, anitza baita proposatu diren izenen ikuspegitik ere. Baina bat aukeratu behar eta Orbeldi Dantza Taldeak jaso du babes gehien”

toian bildu ziren talde guztiak; Usurbilgoarekin batera, Faltses, Errenteria, Lasarte-Oria eta Sestaoko dantzariak.

Bertsopaper lehiaketa

16 urtetik gorako usurbildarrek parte har dezakete Bota Puntubak antolaturiko txapelketan. Lanek inoiz argitaratu gabeak izan behar dute. 8-10 bertso artean aurkeztu ahalko dira.

“Lanak egilea nor den adierazi dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz. Lanarekin batera kartazal itxi batean parte hartzailearen datu pertsonalak aurkeztuko dira”. Lan originalarekin batera, 3 kopia bidali behar dira, ekainaren 8a baino lehen, helbide honetara: Usurbilgo Udala (40. Bertsopaper Lehiaketa), Joxe Martin Sagardia plaza, Usurbil 20.170.

Jai egitaraua etxeetara iritsiko da ekaina amaieran

Jai Batzordeak diseinu lehiaketaren irabazlea ere izendatu du. Hiru lan aurkeztu dira eta hirurotatik Intza Salsamendi usurbildarrena hautatu du Jai Batzordeak. Iazko txapel-dun bera dugu aurtengo irabazlea. Ekaineko azken aste-bururako esku artean izango dugu Salsamendiren diseinu lana, Usurbilgo Udalak etxeko banatuko baitu egitaraua.

“Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak”

Alkartasuna Kooperatibak antolaturiko Sagarrondotik Sagardora ikastaro zikloko datoren saioa larunbat honetan, ekainaren 4an, 09:00-13:00 artean Potxoenean, Aitor Etxeandiak bideratuta.

Informazio gehiagorako eta izen emateko: 943 361 114 / alkartasuna.eus alkartasuna@usurbil.com

Ur sorospenen ikastaroa DYArekin

“Uretan aurki ditzakegun arrisku egoerei nola erantzun ikasiko da. Ikastaro amaierako frogak gaintzen dituenak, Uretako Sorosle Titulua eskuratzeko aukera izango du”. Hortxe DYAK antolaturiko ikastaro berriaren zehaztasunak. Ekainaren 4tik 26ra, saioak goiz eta arratsalde izango dira; 09:00-13:00 artean eta 15:00-19:00 artean. Talde mugatua izango da. Prezioa: 220 euro. Ikastaroan parte hartzeko lehen sorospen titulua indarrean izan behar da. Izen emateko: 943 46 46 22 edo irakaskuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com

KzGuneko ikastaroak

■ Ekainak 15-28, 09:00-11:00 Ofimatika tresnak-LibreOffice.
■ Ekainak 29, 09:00-11:00 Twitter. Momentuan momentuko informazioa.
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net
edo.kzgunea.eus

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@nooua.eus

ARRANDEGIA
PELLO

PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Patxina jatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera

943 362725 · 688 690 361

Energia-kontsumo txikiko modulu berriztagarri berria sortu dute Lanbide Eskolan

Enegur du izena eta bero-premia txikiko modulu aurrefabrikatu bat da, Passivhaus irizpideen arabera eraikia: isolamendu ona, filtrazioak ekiditen dituena, eta putzu kanadar bati loturiko aireztapen-mekanikoa duena.

Bero-ekarpena eguzki-energiarekin eta aerotermiarekin lortuko da. Ekarpen elektrikoa, berriz, mikro-sarearekin. Sare horrek bi atzipen-eremu fotovoltaiko dauzka, 10 kWp-koak, eta 3 kWp-ko haize-turbina bat.

Saiakera ezberdinak frogatzeko erabiliko da. Eta enpresek arlo honetako teknologia berriak probatu ahal izango dituzte.

Moduluaren lehen solairuak 80 m²-ko azalera izango du eta 30 laguntzako ikasgela gisa erabiliko da. Bertan dago ageriko galdara-instalazioa, eta lan-saioak egin nahi dituz-



Lehen solairuak 80 m²ko azalera du eta 30 laguntzako ikasgela. Bigarren solairuan energia-eraginkortasuneko ikasleen tailer-ikasgela egongo da.

ENEGUR

“Eusko Jaurlaritzaren, Tknikaren eta egitasmo honen alde egin duten 17 enpresen lankidetzari esker gauzatu ahal izan da”

ten enpresei edo erakundeei irekita egongo da. Bigarren solairuan energia-eraginkortasuneko ikasleen tailer-ikasgela

egongo da.

Eusko Jaurlaritzaren babesari esker eta Tknikaren nahiz egitasmo honen alde egin duten 17 enpresen lankidetzari esker gauzatu ahal izan da proiektua. 150 lagunek hartu dute parte proiektuan –zentroko 90 ikasle, Txileko 40 ikasle eta 20 irakasle–. Iazko uztailen eman zituzten lehen urratsak, baina muntaia lanak udazkenean abiatu ziren.

Ekainaren 6an zabalduko da aurrematrikulazioa

Usurbilgo Lanbide Eskolak erdi eta goi mailako zikloak eskaintzen ditu, A, B eta D ereduetan. Eta hauek dira lau adar nagusiak: Administrazioa, Elektrizitate-elektronika, Fabrikazio mekanikoa, Ura eta Energia. Datorren astean zabalduko da 2016/2017 ikasturterako aurrematrikula-epea. Ekainaren 17ra arte egongo da aurrematrikulazioa zabalik. Aurrerago osatu ahal izango da matrikulazioa.

Informazio gehiago:

■ www.lhusurbil.eus

■ 943 36 46 00



Enegur, bero-premia txikiko modulu aurrefabrikatua, aurreko astean inauguratu zuten.

Gaztetxoek sorkuntza lanak, Sutegin ikusgai

Ikasturte amaiera ate joka dugun honetan, balantzeetarako eta eginiko lanetarako jendarteratzeko garaia da talde askorentzat. Tartean, Hitz Aho Udaregi Ikastolako Guraso Elkarteak antolatuta, azken hilabeteotan Potxoenean bideratu duten komikigintza tailerrekoena. Aurten larunbatez, ekainaren 4an ospatuko den Ikastola Egunaren harira deitu diren ekimenen artean, Joseba Larratxe marrazkigileak bideraturiko ikastaro honetan LH eta DBHko ikasleek eginiko sortze lanak Sutegin jarriko dituzte ikusgai egunotan. Ekainaren 2an, 18:30ean inauguratuko dute erakusketa.



Ekainaren 2an inauguratuko da komiki tailerrekoek Sutegin ipini duten erakusketa.

“Ikasle bakoitzak landutako komikiaren gutxienez lehenengo orrialdea izango da ikusgai. Arkatza eta tintan marraztuarazi diet, komikilari profesionalen gisara. Eta gero haien tinta original hori hartu eta kopia egin diet, originala koloreztatu behar ez izateko. Kasu batzuetan ikusi ahalko dugu originala, eta margotua. Beti da bitxia. Beti ikusten da komikilari profesionalen erakusketetan, eta niretzat ere polita da hasiberriek ere ikustea beren

JOSEBA LARRATXE

Beti ikusten da komikilari profesionala erakusketetan. Eta niretzat polita da hasiberriek ere ikustea beren lana jarrita maila berean. Publikoarentzako bitxia izango da”

lana jarrita maila berean. Publikoarentzako ere bitxia izan-

go da”, adierazi dio NOAUA!ri Larratxek.

“Irudimen handia dute”

Lanon atzean dauden egileak ere hobeto ezagutzeko balioko digu erakusketak. “Polita da ikustea nola funtzionatzen duten haurren buruek, gureak baino askoz konplexu gutxiagorekin normalean, baina askoz mekanismo oinarritzkoagoeekin. Komiki batean hori

guztia ikusten da zuzenean. Ez da marrazki soil bat, da marrazkia, narrazioa, konposaketa eta sorpresa handiak ematen ditu”, gaineratu du Josebak.

Irudimen handiko gaztetxo taldea dugu honakoa. “Irudimen handia dute denek. Baina badaude pare bat, zaletasuna garatu nahiko balute, etorkizunean oso komikilari onak izan daitezkeenak”, dio Joseba Larratxek.

Istoria planifikatzen ikasteko tailerra

Erakusketarekin ia hiru hilabetez eginiko lanetara borobilduko du hamabosteko taldeak. Nozio oinarritzkoak irakatsi dizkie Josebak, komikigintzarako sarriera modukoa izan da tailer hau, “komikiak karrera batarako ematen du eta”.

Komiki bat nola egiten den, pausoz pauso azaltzen eta pau-

so bakoitza gauzatzen joan dira ikasleak. “Helburua, ikasturte bukaeran bakoitzak bere komikitxo bat egin izatea zen. Zer gertatu da? Denak oso anbizio handikoak direnez, denek istorio luzeak zituzten. Lehen edo bigarren orria egitearekin konformatuko dira”, azaldu digu tailerreko bideratzaileak.

Tailerrak ez zuen marrazten ikasteko ekimena izan nahi,

“gehien kasuan, istorio bat kontatzea zer den kontzientzateago izateko baizik. Lanaren lehen fasean, istorio bat asmatu eta idatzi behar zuten, marrazten hasi aurretik. Badu planifikazio lan bat. Normalean adin hauetan ez duzu imaginatzen ere, gauzak hainbeste planifikatu daitezkeenik. Sorkuntzaren munduak nola funtzionatzen duen ikusarazi

die beraiei. Ziur aski beste komiki bat egiten badute orain, beste modu batera landuko dute proiektu hori”, Josebaren esanetan.

Jarraipena izan dezake

Momentuz jakiteke dute irailetik aurrera, jarraipena emango dioten tailerrari. Tailerreko kide batek baino gehiagok nahi lukete segi.

Udarregi Ikastolaren aste bereziena

Ekainak 2, osteguna

■ 17:00 Solasaldia: “EKI proiektua DBH-n. Zer dakigu proiektuaz? Zer ikasi nahi dugu? Zer nolako galdera ditugu?”.

Hizlariak: Abel Ariznabarreta, Ikastolen Elkarteko Zuzendari Pedagogikoa eta Mikele Aldasoro EKI Proiektuaren ardurduna.

■ 18:30 Komiki erakusketaren inaugurazioa, Sutegiko erakusketa aretoan.

Zehaztasunak: “Komiki erakusketaren inaugurazioa. Lanak astea osoan zehar ikusgai izango dira. Artistak, solaskide izango ditugu bertan”.



Larunbatean, eguerdiko 12:00etan hasiko da HH-koen jaialdia Kiroldegian.

Ekainak 3-6, ostiraletik astelehenera

■ Haur Eskolako erakusketa, Oiardo Kiroldegiko harrera tokian.

Ekainak 3, ostirala

■ 17:00 Antzezlanaren Potxoen atzealdeko anfiteatroan: “Taberna”, Bapatean Zirko

taldearen eskutik. Oharra: eurria egingo balu, Askatasuna plazan.

■ 18:00 Txokolate jana eta

buruhandi txikien festa Askatasuna plazan.

■ Oharra: Etxean buruhandia duenak, ekar dezala Askatasuna Plazako ekitaldira.

Ekainak 4, larunbata

■ 09:00-12:00 LH eta DBHko ikasleen jokoak.

■ 10:00 Esnadeia.

■ 10:30-13:00 LH eta DBHko ikasleen eskulan eta teknologia lanaren erakusketa, Udarregi Ikastolako eraikin gorrian.

■ 12:00 HH-koen jaialdia Oiardo Kiroldegian.

■ 14:00 Herri bazkaria eta bazkalosteko girotea gurasoen eskutik.

Antolatzailea:

Udarregi Ikastola.

BAZKIDEEN TXOKOA

ASTE HONETAN...NOAUAKO
bazkide guztien artean
zozketatuko DUGUN SARIA...

+

2 LAGUNENTZAKO
ZIRKUITU TERMALA ORIOKO AISIAN

noaua! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkarte@noaua.eus

“Giza-kateko aurreikuspenak oso modu nabarmenean gainditu dira”

Gutxienez 5.000 lagun behar zituzten osasunaren aldeko eta erraustegiaren aurkako giza-katea osatzeko. Gutxienez kopurua aise gainditu zuen Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak iganderako antolatutako mobilizazioak. Eskua emanda milaka lagunek bat egin zuten, Donostiako Onkologikoa eta Foru Aldundi aurreko Gipuzkoa plaza lotu zituen giza-kate arrakastatsuekin.

“Antolatzaileok kalkulatu genuen Onkologikoa eta Diputazioa giza-hari batekin lotzeko, batz bestea 5.000 lagun behar zirela, baina hari hori zati askotan hirukoiztu eta beste askotan mataza izan da. Beraz, otsailean Zubietako Martxan gertatu zen bezala, aurreikuspenak oso modu nabarmenean gainditu dira”, jakinarazi du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak ohar bidez.

“Horma-irudi bat ere margotu da, zeinean, umorez, Gipuzkoako armarriko hiru haginak tximiniek ordezkatu dituzten”, antolatzaileen esanetan.

“Denon artean geldituko dugu”

Gizarteari, agintean direnei,



Nerea Uriberen bizikletak eraman zuen mezua Gipuzkoa Plazako oholtzara.

ERRAUSTEGIAREN AURKAKO MUGIMENDUA

“Interes handiak behar dute izan, herritarren osasuna arriskuan jarri eta etorkizuneko belaunaldiak hipotekatzeko”

enpresei, alderdi eta eragileei mezu bana helarazi zien Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, giza-kate amaieran. Gizarteari, “Gipuzkoak ez du erraustetarik behar” eta inork halako plantarik etxe ondoan ez duela nahi adierazteko. “Badakizu txosten epidemiologikoen zer dioten: erraustegiak minbiziak hiltzeko arriskua dakar. Zuretzat nahi ez duzun hori ez ezazu onartu beste gipuzkoarrentzat ere. Lagun gai-

tzazu. Olatua handitu besterik ez da egingo aurrerantzean eta zure laguntza ere behar dugu. Denon artean geldituko dugu”, adierazi zuen Teresa Lopez de Munainek irakurritako adierazpenean: “Interes handiak behar dute izan, herritarren osasuna arriskuan jarri eta etorkizuneko belaunaldiak hipotekatzeko”, gaineratu zuen.

Giza-katean bildutakoei entzuteko eskatu zieten. “Erraustegia ez den hondakinak kudeatzeko alternatibak badira. Zuekin gai honi buruz hitz egiteko prest gaude. Baina erraustegia jartzeko tematzen bazarete, aurrez aurre izango gaituzue. Determinazio osoz proiektu horren aurka egongo gara. Ez dizuegu utziko besterik gabe, gure eta gure seme-alaben osasuna arriskuan jartzea”, ziurtatu zuten.

Osasunarekiko konpromisorik irmoena

Enpresei, herritarren osasunaren bizkar negoziaririk ez egitea eskatu zieten. “Gure osasunak eta gure seme-alabenak, zuen negozioaren irabazi guztiek baino gehiago balio du”.

“Borrokak ez du etenik izango”

Erraustegiaren aurkako borrokak etenik ez duela izango ohartarazi zuten. “Ondo pentsatu non sartzen ari zareten. Erraustegia eraikiko balitz ere, ziur egon itxi

arteko onik ez dugula izango”, iragarri zuten. Gaineratu zuten, “tximinia altxata, herritarrok guztia irentsiko dugula uste baduzue, oso oker zaudete”.

Azken mezua, alderdi eta eragileentzat izan zen. Erraustegia-rena, Gipuzkoako osasun arazo larrienetakoa dela gogorarazita, “espero dugu erronkaren tamainako erantzuna zuen aldetik. Zuen konpromisorik irmoena eskatzen dizuegu herritarren

osasunarekiko. Zaudeten tokian zaudetela, gobernuan edo oposizioan: erraustegia baztertu eta beste bide alternatiboen alde egingo duzuela espero dugu. Ez legea, ez ‘ad hoc’ prestatutako mankomunitate eta GHKren estatutuak ez direla oztopo izango erraustegia ez egiteko, eta eginda egongo balitz ere, ixteko bidean jartzeko. Herritarrok ondoan izango gaituzue bide horretan”.



Ehunka usurbildar batu ziren maiatzaren 29ko giza-katera

Osasunaren aldeko eta erraustegiaren aurkako mobilizazioa arrakastatsua suertatu bada oro har, udalerrri honetara etorrira ezin esan bestelakorik; Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldeak emandako datuen arabera, ostiralera arte, 520 izen emate txartel banatu zituen taldeak, azken asteotan Sutegin jarri duten mahaian. Zubietan beste 134 izen emate bideratu dituzte gutxienez. Atxikimendu hauei guztiei, asteburuan edota erraustuez.org atariaren bidez izena emandakoak batu behar zaizkie. Baita izena eman gabe giza-katean parte harturikoak. Herri txikia izanik, erronka handiei bikain erantzuten dakien udalerrria dela erakutsi du beste behin Usurbilek. Irudi gehiago, noaua.eus atariko Argazkietan dituzue.

Atxikimenduak

Aiztondoko plataforma (Villabona, Zizurkil, Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraul), Astigarraga Zero Zabor, Eguzki, Ekologistak Martxan, Erraustegiaren aurkako Usurbilgo Taldea, Erraustegia Erabakia (Usurbil), Erraustetaren kontrako Koordinadora, Greenpeace, Haritzalde Naturzaileen Elkarte, Hernanin Zero Zabor, Ipar Haizea (Andoain), Lasarte-Orian Aire Garbia, Oñati Zero Zabor, Tolosa Zero Zabor, Usurbilgo Zero Zabor, Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarte, Zubietako Herri Batzarra, EH Bildu, Equo, Ernai, Ezker Anitza-Izquierda Unida, Gazte Abertzaleak, Irabazi, Podemos Euskadi, Sortu, CCOO de Euskadi, ELA, ESK, LAB.

“Ardura printzipioa aplika dezatela”

Donostiako Onkologikotik Gipuzkoa plazara bizikletaz garraiatu zuen Nerea Uribe usurbildarrak, beste hainbat lagunekin batera, giza-kateko mezu sekretua kutxa batean. Ekitaldi amaieran, Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko kide Xabier Mitxelena medikuak kutxa ireki eta irakurri zuen barruan zegoen mezu sekretua. Honela zioen:

“Egunon guztioi!

Arrazoi asko entzun ditugu erraustegiaren aurka. Guk, medikuak garen heinean, bat azpimarratu nahi dugu: erraustegiak osasunerako kaltegarriak dira. Nazioarteko foro zientifikoetan argitaratutako hainbat eta hainbat ikerketa aztertu eta gero, hau ondorioztatu dugu: erraustegi baten inguruan bizi diren herritarrek malformazio, aborto, minbizi eta heriotza tasa altuagoak dituzte. Behin eta berriz ematen da emaitza hau, erraustegi zaharrek eta baita erraustegi modernoekin ere. Ikerketak publikoak dira



Xabier Mitxelena medikuak irakurri zuen mezua jendaurrean.

eta jakin nahi duen edozeinentzako eskuragarriak daude datu base zientifikoetan, baita politikoentzako ere.

Beste aldetik, informazio hau guztia, publikoa dena, ezkutatu egiten da. Ez zaie interesatzen herritarrek hau jakitea, erraustegia egin nahi dutenek baitakite herritarren osasunarengan eragina izango duela.

Erraustegiaren alde egitea osasunaren aurka egitea dela uste dugu. Ez dugu nahi, utzikeriaz, amiantoak sortu dituen arazo larrien bide berdinetik joan nahi datozen urteetan. Izan ere, orain ikusten ari gara

amiantorekin lan egin duten langile asko minbiziaz hiltzen.

Honengatik guztiagatik, profesional arduratsuek eta herritar kezkatuek bezala, zera eskatzen diegu agintariei:

Lehenik, egia. Zintzotasunez joka dezatela. Onartu dezatela ikerketa hauek guztiak eginak daudela eta emaitzak hauek direla.

Bigarrenkoz, hauen aurrean, ardura printzipioa aplika dezatela. Kasu honetan aplikazio honek erraustegia ez egitea suposatzen du.

Guk garbi daukagu, erraustegirik ez, ez Zubietan, ez inon. Mila esker”.

“Guk izandako minbizia ez dugu inork erraustegiagatik bizitzerik nahi”

Minbizia gertutik ezagutu dutenek, lehen pertsona sufritu dutenak ere elkartu eta erraustegiaren aurkako mugimendu zabalera batu dira. Zubietan eraiki asmo duten erraustegiak osasunerako dakartzan kalteekiko “kezka helarazi nahi dugu. Ez dugu inork erraustegiagatik minbizirik pasatzerik nahi”. Hala adierazi zuten Olatz Matxain eta Garbiñe Zaldua herritarrek, Potxoenean egin zuten ekitaldian.

Atxikimendu nahiz ekarpenetarako irekiak

Hedabideetara bidali asmo dituzten iritzi artikuluek prestatzen ari dira Olatz eta Garbiñe. Minbiziaren aurkako eragileekin, Kattalin, Aspanogi eta Espainiako Minbiziaren Aurkako Elkartarekin ere hartuemanetan jarri dira. Potxoenean aurkeztu zuten taldea irekia dago prestatzen ari diren iritzi artikuluetarako minbizia izan edota dutenen atxikimenduak biltzeko, nahiz bestelako ekarpen edo proposamenak jasotzeko ere. Erraustegia ez den “beste sistema batean pentsa dezatela”, eskatu zuten Potxoeneko saioan.

Erraustegia martxan jarrita arnastuko dugun kezka bakarrik ez, kezka azaldu zuten baita, edaten dugun uraren kalitatean edota hondakinak erraustea bertako lurretan izango duen eraginagatik. Kezka baita noski, erraustegiak eragin ditzakeen gaixotasunengatik eta oro har, arriskuan dagoen guztion osasun eta ingurumenagatik.

Erraustegiaren aurka, Txirrinka

Txirrinka ekimenak geldialdia egin zuen maiatzaren 21ean Zubietan. Proiektu txikitzaileen aurka, lurra zaindu eta eredu soziala eraldatzea aldarrikatzeko martxan, Zubietako Herri Batzarreko kide Fernando Iturralde hartu zuen hitza, hondakinez gain, “dirua eta gure osasuna” erraustu nahi dituen proiektuaz aritzeko. Erraustegiaz alegia.

Planta hau kokatu nahi duten gunetik gertu, eraiki nahi dituzten kartzela eta industriagunea ere aipatu nahi izan zituen. Egitasmo guztiok bideratzeko “gure mendia, gure lurak lapurtu zizkiguten.



Txirrinka martxa Usurbildik pasa zen eta Zubietan geldialdia egin zuen. Martxaren argazki gehiago QR kodearekin ikus ahal izango dituzue.

Dena suntsitu, txikitu zuten”, lurrokin nola espekulatu den salatzearekin batera. Eskaera bat ere luzatu zien, Donostiako Udaleri eta Foru Aldundiari, Biodonostiak egin asmo dituen

azterketa epidemiologikoen harira. “Gure gaitzekin ez dugu nahi inork jolastea, inork dirurik egitea, ezta inork ere ikeretzea nahi. Guk nahi duguna da gure osasuna mantentzea”.



Erraustegiaren aurka eta osasuna babesteko egiten ari diren lanketa aurkeztu zuten Potxoenean.





Klik! batean

Eskuz esku

Zure eskua. Nire eskua. Aldamenekoaren eskua. Elkar grataturik. Mekanika erraza du giza-kateak. Aurreko igandeko erronka konplikatuxeagoa zen, baina aise gainditu zen. Jende askok ordea, ez zuen oso argi noiz eta nola igaroko zen “lekukoa”. Eta iristen zen bitartean, olatua egiten aritu ziren. Non eta Olatu Talkaren hiriburuan. Dena den, olatu honen mezua ez zen hain xaloa: “Erraustegiaren alde egitea, osasunaren aurka egitea da”. Gipuzkoako Foru Aldundiari zuzendua zegoenez, hantxe amaitu zen giza-katea.

Argazkia: Ion Markel







Argazkiak: Lurdes Hueta, NOUUA!. Bideo eta irudi gehiago, www.noaua.eus webgunean.

Clara Perales: “Erraustegiaren eraikuntza geratzeko garaiz zabiltzate”

Giza-kate amaierako une gogor eta hunkigarriena, Valdemingomezeko (Madril) erraustegiak kalteturiko lagunek hitza hartu zutenean bizi izan zen. Clara Perales hitz egiten hastean. Bere adierazpenak behin baino gehiagotan eten zituzten, Gipuzkoa plazara bertaraturiko lagunen txaloek eta erraustegiaren aurkako oihuek.

Ez zen gutxiagorako. Clarak bere lekukotza gogorra plaza-ratu zien gipuzkoarrei. 20 urtez erraustegitik gertu bizitzeak sufriarazi diona azaldu zigun. Bi hamarkaden ondoren, “behin betiko ixteko borrokan segitzen dugu” adierazi zuen Clarak. Horregatik, Gipuzkoa plazan bildutakoei argi adierazi zien: “Zuek garaiz zaudete Zubietako erraustegiaren eraikuntza geratzeko. Arriskua benetakoa baita. Osasuna eta aire garbia guztion ondasuna da, ez du ideologiarik. Zuentzako nahi ez duzuen beste inorentzat ere ez, ez Zubietan eta ez beste inon”.

“Konbentzitu erraustegia eraikitzea defendatzen duten guztiak, erraustegia pertsonen osasunerako eta ingurumenerako kaltegarria baita”, adierazi zuen. Guztion osasuna jokoan dagoela eta, argi plaza-ratu zuen bere desioa. Eguntan errepikatu duen moduan,



Madrildarra aste osoan izan da gure artean, Valdemingomezeko erraustegiak (Madril) eragindakoaz hizketan. Giza-kateko antolatzaileen lore-sorta jaso zuen ekitaldiaren amaieran.

CLARA PERALES

“Zuek garaiz zaudete Zubietako erraustegiaren eraikuntza geratzeko. Arriskua benetakoa baita. Osasuna eta aire garbia guztion ondasuna da, ez du ideologiarik. Zuentzako nahi ez duzuen beste inorentzat ere ez”

berak bizitakoa ez dio inori opa. “Erraustegiei ez, inoiz gehiago ez, inongo lekutan ez. Akabo hondakinak kudeatzeko modu hau, bada kudeatzeko beste modu bat”, gogorarazi zuen. Bere diskurtsoan

zehir gertatu zen moduan, txalo zaparradarekin agurtu zuten Clara. Hunkituta jaso zuen antolatzaileek oparitutako lore sorta.

“Arriskua benetakoa da, hor dago eta guri eragin digu”

20 urtez erraustegiarekin elkarbizitzeak ekarri dien kalteaz ari da. Hitz gogorak, baina are gogorragoa Clara Perales lehen pertsonan bizitzen ari dena. Rivas, Madrilgo udalerrian bizi da 80. hamarkadaz geroztik. Udalerrri zoragarria dela dio, bizitzeko perfektua, azken hilabeteotan gure artean ezagun egin den Valdemingomezeko erraustegia etxe ondoan eraiki izan ez balio.

“Bukaeraraino borrokatuko dut”

GuraSOS mugimenduak duela bi aste antolatu zituen jardunaldietan bere lekukotzaren berri eman zuen Clarak. Gipuzkoako Batzar Nagusietan ere izan zen aurreko aste hasieran, Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldekoekin batera. Maiatzaren 26an, Usurbilgo Udalak harrera egin zion eta bertan partekatu zuen udal ordezkariekin lerrootan laburbildu dizuegun bere esperientzia.

Ez zaizkio komeni joan etorri asko, baina bere osasun egoeraren gainetik, argi du; “neure buruari borrokatu behar dudala proposatu diot”. Zergatia hitzokin laburbiltzen du; “erraustegiak inor gaixotu dezakeela pentsatzea ezin da onartu”.

“Hiru urteko biloba hazten ikusi ahalko dut?”

Bizi kalitatea ostu diotela salatzen du. Eta galdera bat darabil buruan etengabe; bere 3 urteko biloba hazten ikusi nahi du, baina orain ze espektatiba izan ditzakeen jakin nahi du. “Neure biloba hazten ikusi ahalko dut? Ze eskubiderekkin kendu didate aukera hori? Asaldatzekoa da, hau bidegabea da”. Honekin guztiarekin, kaltetu bakar bat ere ez dugula behar argi eskatzen du Clarak, are gutxiago batzuen interes ekonomikoak asetzeko eraiki nahi diguten erraustegi batengatik.

Berak bizitakoa ez dio inori opa

GuraSOS mugimenduak antolatutako jardunaldietan zioenez, berak bizitakoa ez dio inori opa, eta ahal duen neurrian, borrokatu eta laguntzeko prest dago. Erraustegia geratzeko mobilizatza animatzen ditu herritarrak; erraustegia eraikitzeke dagoenez, garaiz gabiltzala. “Bukaeraraino borrokatuko dut, zuek bezala, erraustegia gertzea lortu nahi duen jende guztia babesteko”, adierazi zuen Clarak. Txalo zaparrada artean agurtu zuten jardunaldietan.

Jende gehiago gaixotu da bere herrian

1995ean erraustegia martxan jarri eta berehala hasi zen Clara osasun arazoekin. Alergiekin lehenbizi. Bere egoera okertuz joan zen denborarekin, bronkioetako arazoak izateraino. Fibromialgia zuela ere detektatu zioten; baina albisterik gogorrena duela bi urte jasoko zuen. Erraustegiak areagotu ditzakeen

gaixotasunen zerrenda beltzean ageri den eritasunetako bat zuela adierazi zioten; linfoma mota bat zuela. Odoleko minbizia, laugarren fasean, fase aurreratuan. Ezin zioten ebakuntzarik egin. “Shock-tratamendu” bat behar zuen. Eta tratamenduan segitzen du, amaitzeko 4 saio falta omen zaizkio. Ez da

bakarra. Peralesek azaldu digunez, egun 80.000 biztanle dituen udalerriko bere auzunean, urbanizazio batean 10 etxebizitzetatik bostetan kolpatu du minbiziak. Bost lagun gaixotu dira; haietatik bi hil dira, hiru tratamenduan daude. Jende gehiago gaixotu dela dio ingurune berean.

Joxan Artzeren poesian barrena

OSTIRALEAN ZABALDUKO DUTE 'IKIMILIKILIKLIK J.A. ARTZEREN UNIBERTSOA' ERAKUSKETA

Luze zabal hitz egin daiteke Joxan Artzeren unibertso poetikoaz. Bideo instalazio honetan ordea, iradokizuntan dago mezuaren indarra. Beraz, ahaztu ohiko erakusketaren mekanika. Bideo-instalazio honen bestelako kodeak jarraitzen ditu. Lau pantaila, pareta eta zorua ari dira solasean. Artze ari du ezker eskuin, Artze ari du goian behean. Era honetan, poetaren irudi poliedrikoa agertuko zaio begien aurrean bisitariari. Artzeren unibertsoaren erakusgarri.

Kanpai-hotsak urrunean, haizearen zurrunbiloa, hitzak hegan... Modu iradokitzailan abiatzen da Joxan Artzeren inguruko bideo instalazioa. Eta giro horretan jarraituko du amaierara arte. Konturatu or-



Donostiako San Telmo Museoa ipini zuten lehenbizi. Miarrizkeo mediatekan ondoren. Orain, herrian bertan gozatu ahal izango dugu Artzeren inguruko bideo-instalazio ikusgarriaz.

duko, bisitariak Joxan Artzeren unibertsoan murgilduta ikusiko du bere burua.

30 minutuko iraupena duen bideo-instalazio honetan, poetaren

gako nagusiak topatuko dituzue. Eta Mikel Laboaren boza, eta Ez dok Amairuren garaia, eta Jexux anaia, eta garai bateko eta egungo Usurbil. Artze, goian behean.

1976ko La Biennale di Venezian ere eskaini zuten *Ikimilikiliklik*

Mikel Laboari buruzko webgunea aurkeztu zuten aurreko astean. Kantariaren biografia, diskografia eta bestelako xehetasunak biltzen ditu mikellaboa.eus atariak. Hemeroteka modukoa ere aurki daiteke. Bertan topatu dugu aldameneko irudia eta ondoko azalpena.

“1975-1978: Joxan eta Jexux Artzerekin batera, Euskal Herriko toki askotan eta Euskal Herriatik kanpora (Madril, Paris, Venezia) *Ikimilikiliklik* ikus-entzunezko ikuskaria muntatu eta eskaini zuen. Gidoia Joxan Artzerena zen; haren poema espazialak eta Zumetaren txorien marrazkiak



1976ko La Biennale di Veneziako kartela eta esku-orria, Jose Luis Zumetako eta Joxan Artzek diseinatuak. Iturria: mikellaboa.eus

proiektatzen ziren. Teknikariak Jose Luis Zabala eta Bixente Karda ziren. Garai hartako emanaldie dagokienez, aipagarria da Venezian 1976ko

Biurtekoan eskaini zutena”. Webgunearen erdarazko bertsiok dioenez, emanaldiek zirrara berezia eragin zuten han eta hemen.

Potxoenean, uztailaren 3ra bitarte ikusgai

- Egunak: ekainak 3-Uztailak 3.
- Potxoenean.
- Sarrera: doan.
- Ekoizleak: San Telmo Museoa, EHUko Mikel Laboa Katedra eta Morgancrea.
- Zuzendaritza: Alberto Lizaralde eta Carlos Rodriguez.
- Jatorrizko ideia: Alberto Lizaralde.
- Antolatzaileak: Jexux Artze Kultur Elkarte eta Usurbilgo Udala.
- Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Babesleak: Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzua, Euskal Kultur Erakundea, Kutxa Fundazioa, Otxoa de Barrandika Fundazioa eta Usurbilgo Udala.

Irekiera ekitaldia:

Ekainak 3 ostirala, arratsaldeko 19:00etan Potxoenean.

Bisita orduak:

Goizetan: Astelehenetik igandera 12:00-14:00.

Arratsaldetan: Asteazkenetik larunbatera: 18:00-20:00.

Informazio gehiago:

Potxoenea Kultur Etxean
943 371999
kultura@usurbil.eus
kultura.usurbil.eus



Udako aisialdiko ekimenak

Usurbilena eta Zubietan bezala, Aginagan ere udako txokoak antolatu dituzte uda parterako. Ekainaren 23tik 30era, uztailearen 1etik 15era eta uztailearen 18tik 29ra, 3-12 urte arteko haur eta gaztetxoentzat. Txokoak goizez izango dira, asteleheneetik ostiralera, 09:00-13:00 artean ludotekan. 10:00ak arte hartuko dituzte haurrak. Txokoetan izen emateko epea zabalik izango da ekainaren 5era arte, aginaga@eskolatxikiak.org helbidean. Prezioa izen emate kopuruaren arabera finkatuko da.

Guraso bilerak

Izen emateak itxita daude jada NOAUA! K.E.-k eta Usurbil-



Udajolaseko guraso bilera ostegun honetan izango da, 17:00etan Sutegin.

go Udalak antolatutako Udajolasen, baita Ziortza Gazte Elkarrekin antolatutako udako kanpaldirako ere. Aisialdiko bi ekimenoi buruzko argibideak emateko, guraso bilerak deitu dituzte:

Ekainak 2, osteguna

17:00 Udajolaseko guraso bilera Sutegin.

Ekainak 11, larunbata

11:00 Ziortzaren kanpaldirako guraso bilera Sutegin.

Kalejiran

Urola Kostako Jubilatuen Txapelketan

Argazkian dituzuen bi bikoteak dira Altzan jokatuak mus txapelketako finalistak. Segurako bikotea irabazlea eta Aginagako Joxe Mari Bengoetxea eta Maria Angeles Arruti bigarrenak. Ibilbide polita egin dugu horra iristeko, baina mezezi izan du. Oso bikote jatorrak izan ditu bidean, Usurbil, Deba, Lezo eta azkenik Segurakoak. Opari, garaikur polita eta ondoren bazkaria, Altzako elkartearen. Lerro hautetatik eskertu bolondres guztiei egin zuten lana eta arduragatik! Milesker!



Mus txapelketan, Segurako bikotea nagusitu zen eta Aginagako Joxe Mari Bengoetxea eta Maria Angeles Arruti bigarren izan ziren.

Maria Angeles Arruti

Udajolaseko guraso bilera

Uztailearen 4tik 29ra Usurbilgo Udalak eta NOAUA! Kultur Elkarrekin antolatutako udako aisialdi ekimenean izena eman duten haurren gurasoentzako bilera antolatu dugu ostegun honetarako, ekainak 2, 17:00etan Sutegiko auditorioan. Bertan emango dira Udajolasi buruzko beharrezko argibideak.

Yoga ikastaroa, Etumeta AEK-ren eskutik

Etumeta-AEK euskaltegiko ikasle bat taldeko irakasle bihurtu zen egun batez. Ikasgelatik atera eta Potxoenean yoga saio bana eskaini zien Javier Espinak, maiatzaren 18an goiz eta arratsaldean, euskaltegiko kideei. "Ederki moldatu zen euskaraz Javi eta guk primeran pasa genuen!", adierazi digute Etumeta AEK-tik bidali diguten argazki honekin batera.



Maiatzaren 18an, ikasgelatik atera eta yoga saioaz gozatu zuten Potxoenean.

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Kirola eta jolasa, eskutik

8-13 urte artekoek uztailan kirolaz gozatzeko eskaintza zabala aurkituko dute Kiroldegian antolatu dituzten txokoei esker. Denarik jardueretan parte hartzeko aukera izango dute, bai Oiardon baita handik kanpo ere. Besteak beste txangoak egitekoak baitira. Beti ere, "eguraldiaren arabera egingo dira" ohartarazi dute antolatzaileek. Kasutan, "autobusez egingo diren irteerak ez daude prezioen barne".

Argibide gehiagorako:

943 372 498

kirola@usurbil.eus

buruntzaldea.eus

Facebook: Oiardo Kiroldegia

Aurreikusitako ekintzak:

■ Irteerak: mendi bizikleta, ibilaldiak (mendira, hondartzara...).



Altxorraren bila, ginkana eta kirol modalitate ezberdinetan aritzeko aukera izango dute.

■ Kirol alternatiboak: patina-jea, boulderra (hastapen tailerra), badmington, hockey, freesbe.

■ Jolasak: altxorraren bila, ginkana, globo jolasak...

■ Igerilekuko ur jolasak: waterpolo, saltoak, koltxoneta lasterketak, zirkuituak...

■ Kirol ekintza ezberdinak: herri kirolak (txingak, sokatira...), pilota (eskuz, raketaz, palaz).

Txandak:

■ Hilabete osoa: uztailaren 4tik 29ra.

■ Lehenengo txanda: uztailaren 4tik 15era.

■ Bigarren txanda: uztailaren 18tik 29ra.

■ Orduetgia: 10:00-13:00.

■ Nori zuzendua: 8,9,10 eta 11, 12 eta 13 urtekoentzat.

■ Antolatzailea: Oiardo Kiroldegia.

Usurbil Cup, izen ematea

Ostiral honetan, ekainaren 3an itxiko du Usurbil Futbol Taldeak, Usurbil Cup txapelketan parte hartzeko izen emateko epea. Apuntatzeko, gerturatu Oiardo Kiroldegia.

Eskuratu izen emate orriak, datu pertsonalekin bete eta diru sarreraren ziurtagiriarekin batera, Kiroldegian utzi. LH 1-DBH 2 ikasturte arteko ikasleei zuzendua dagoen ekimena, irailean ospatuko da. "Animatu Usurbil Cup 16an parte



LH1-DBH2 ikasturte arteko ikasleei zuzendua dago Usurbil Cup.

hartzera", deitu dute Usurbil F.T.-tik. Antolatzaileek aurrerago emango dute, zehaztasun gehiagoren berri.

Alebin mutilak Gipuzkoako finalerdietan

Udarregi eskubaloi taldea, Gipuzkoako Txapelketako finalerdietarako sailkatu da. Finalerdia, ekainaren 11n goizeko 10:00etan jokatu dute Urnietako udal Kiroldegian, Maria eta Jose C taldearen aurka.

Finala ekainaren 12an

Finalerdietan nagusitzen direnek, biharamunean, ekainaren 12an jokatu dute final handia, kiroldegi eta ordu berean, goizeko 10:00etan.

Lizarrusti-Larraitz mendi irteerarako, ekainaren 8a baino lehen apuntatu

Ekainaren 12rako antolatu du irteera Andatza M.K.T.-k:

■ Eguna: ekainak 12 igandea.

■ Abiatzeko hitzordua: 07:00etan Oiardo Kiroldegitik. Joan etorria: autobusez.

■ Ibilbidea: 19 km. "Usurbildik Lizarrustira autobusez abiatuko gara, Aralarko Gango mendia igo eta Txindokiren albotik Larraitzera joateko".

■ Izen ematea: 10 euroko ordainketa egin behar da ekainaren 8a baino lehen, kontu zenbakiotako batean: Rural Kutxa: 3008025916300543 0321.

Kutxabank: 20955069071068489805.

■ Plaza mugatuak.

■ Otordua, ibilbidea amaitu-takoan egingo da.

■ Janaria norberak eraman behar du, edaria antolatzaileek.

■ Irteeran parte hartzeko derrigorrezkoa da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea.

■ Informazio gehiago: andatzamendizale.info

Eskubaloia Kiroldegian

Ekainak 5, igandea

■ 10:00 Alebin mutilak, Gipuzkoako Errendimendu Txapelketa:

Usurbil K.E.-Ereintza Urdina.

■ 11:15 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Ordizia Eskubaloia

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

ETXETRESNEN KONPONKETAK

Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK

645417665
XABIER
Usurbil

Agirretxe Taldeak, 5 urte

Gogotik ospatu du Imanol Agirretxeren eta Realaren aldeko taldeak, bilgunea sortu eta martxan jarri zuteneko bosgarren urtemuga. Trikitilari eta bertsolariekin, tabernaz taberna ostiral arratsaldean egin zuten poteoan lehenik, eta Saizar Sagardotegian afari baten bueltan gero. Jendetza batu zuten ospakizunek.

Agirretxe Taldekoak pozik ziren urtemuga honetan, taldeak izan duen ibilbidearekin eta baita urteurrenak izandako arrakastarekin ere. Orain arte, bazkideen artean ospatzen zuten egun hau. Aurten bazkide ez direnek ere gerturatu ahal izan dute festara, eta azkene-rako koadrila ederra batu zen.

“Herri osoan babes handia jasotzen dut”

Ia 100 lagunek osatzen dute bilgunea. Jasotzen duen babesarekin pozik agertu zen baita, Imanol Agirretxe. Afalaurretik hitz batzuk esateko tarte eskaini zioten futbolari usurbildarrari. Agirretxek eskerrak helarazi nahi



Koadrila ederra batu zen Saizarrean.

IMANOL AGIRRETXE

“Eskerrik asko denoi, ematen duzuen babesagatik, eta hain berezia den egun hau nirekin ospatzeagatik”

izan zizkien bertaraturikoei.

“Eskerrik asko denoi etortzeagatik. Orain arte, jai hau bazkideen artean ospatzen genuen. Aurtengoa bosgarren urtemuga izanda, iruditzen zitzaizen talde kideei eta baita niri ere, polita izango zela herri-ritar eta lagun guztiei zabal-tzea. Azkenean talde guztitik aparte, herri osoan ere babes handia jasotzen dut. Usur-

bildarrak ez diren batzuk ere etorri dira, lagun asko. Eskerrik asko denoi, ematen duzuen babesagatik, gaur hona etortzeagatik, niretzako hain berezia den egun hau neurekin, gurekin ospatzeagatik. Eskerrik asko eta segi horrela!”, adierazi zien Agirretxek, Saizar Sagardotegian afaltzeko prest izan eta txalo artean hartu zuten zaletuei.

Usurbilgo Pilota Txapelketa Ekainak 3 ostirala, 19:30 Usurbil

2. Maila:
Altuna anaiak (Astigarraga)
Errasti-Aranguren (Agiña)

Ekainak 5 igandea, 12:30 Usurbil

1. Maila:
Otxandorena-Landiribar (Baztan)
E.Labaka-Arratibel (Bidegoien)

Ekainaren 9an kiroldegian, Tximeleta taldearen ikasturte amaierako ikuskizuna

Ikasturte bukaerarekin batera Tximeleta taldearen jaialdiak ospatu ohi dira. Ekainaren 9an arratsaldeko 17:30etik aurrera, gimnastika erritmikoko, gimnastika dibertigarriko eta Hip-Hopeko emanaldiak iragarri dituzte Oiardo kiroldegian. “Bertan 5 urteetatik 23 urtera arteko partaideek ikasturte osoan zehar prestatutako lana erakutsiko dute eta emanaldi bukaeran... sorpresa bat edukiko dugu! Animatu eta etorri guretzako hain polita den egunaz gozatzera! Sarrera doan da”.



Arratsaldeko 17:30ean hasiko da eta sarrera doan da.

Lazkaok egin du aurrera Herri Arteko Pilota Txapelketan

Lazkaon, joaneko partidetan, Usurbilgo Pagazpe pilota elkarteak bi irabazi eta bat galdu zuen. Itzuleran, baina ez zuten errenta mantentzerik izan. Lazkaokoak nagusitu ziren bi partidetan. Eta tanteoagatik, Usurbilgo taldea txapelketatik kanpo geratu da. Baina hala ere, lan ederra egin du Pagazpek.

Usurbil 1- Lazkao 2

Kadeteak:
Galarraga-Arzallus 4 (Usurbil)
Pajares-Garmendia 22

Jubenilak:

Ramos-Aranguren 22 (Usurbil)
Ruiz-Garmendia 15

Nagusiak:

Huizi-Errasti 16 (Usurbil)
Intsausti-Bereziartu 22

* Tanteoz, Lazkao nagusi.



Tanteoarengatik ez dute aurrera egin usurbildar gazteek.

Bi lagunentzat otordua

Aginaga sagardotegian

10243 zenbakia izan zen saritua herri arteko Usurbil-Lazkao kanporaketan. Saria Aginaga Sagardotegian bi lagunentzat otordua. Saritua Itzalai Pikabea izan zen.



Itzalai Pikabearentzat izan da saria.

ETXEBIZITZA

Salgai

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela handi, 2 komun, saloi handia, sukaldea... Dena kanpokaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 60 metro, 140.000 euro. [Tel: 636393237](tel:636393237)

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m². Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Dena kanporaldera. Prezioa 150.000 euro. Ramón 615149900.

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukaldea jantokia aparte duela. [605 707 642](tel:605707642).

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. [689 58 39 21](tel:689583921).

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro ([620826891](tel:620826891)).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. [615 758 476](tel:615758476).

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. [163.000 euro](tel:163000). [Tel. 646 663 405](tel:646663405).

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiajan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. [646344847](tel:646344847)

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. [637 309 209](tel:637309209).

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Inaki ([665736896](tel:665736896))

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. [Tel. 637 225 620](tel:637225620).

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. [608 227 462](tel:608227462). Prezioa jaitzi

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: [943 360 321](tel:943360321) / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdik 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

[dugu; orain, 36 milioi pezetatan](#)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, [678 581 991](tel:678581991).

Alokairuan

2 logela alokatzen ditut 300 eurotan Wifi-a doan. [681 393 183](tel:681393183).

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. [699 680 265](tel:699680265).

Alokairuko pisu baten bila nabil, bi gelakoa 500-650 euro artean, edo hiru gelakoa 550-700 euro artean. [632129182](tel:632129182) Claudio

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. [Tel. 686 554 145](tel:686554145). Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logeekin posible bada. [648 220 432](tel:648220432).

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. [Tel. 603 336 046](tel:603336046).

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. [661 378 340](tel:661378340).

Alokairuko pisu baten bila nabil. [Tel: 620 708 265](tel:620708265) / [686 143 7866](tel:6861437866).

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. [Tel. 665 319 105](tel:665319105).

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. [657 535 299](tel:657535299).

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. [664885737](tel:664885737).

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. [682 214 506](tel:682214506).

Emakume bat gela baten bila nabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). [674463942](tel:674463942)

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Autokarabana salgai 69.000km. [37.000 euro](tel:37000). [627596627](tel:627596627)

Garaje itxia alokatzen dut, 20 metro koadro, Kale Nagusia 22-an. [618860270](tel:618860270)

Garaje bat saltzen dut Erdiko-kalea, 10 zenbakian. 2 kotxerentzat. 60.000 euro. [699 720 940](tel:699720940)

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. [696 014 585](tel:696014585).

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. [665677195](tel:665677195)

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. [671 547 567](tel:671547567).

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. [653380557](tel:653380557).

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. [671547567](tel:671547567)

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. [Tel. 679 732 489](tel:679732489).

Garaje itxi bila nabil. Moto-rra uzteko izango litzateke. [645720571](tel:645720571)

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. [615149900](tel:615149900).

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People [125 618 963 85](tel:12561896385).

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. [607 333 966](tel:607333966).

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Pertsona helduak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, asteburuetan eta jai egunetan eta ospitalean gauak pasatzeko. [632 754 243](tel:632754243). Piedad.

Neska bat lan bila nabil, garbiket

ta lanetan eta pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala edo orduka. [646 062 692](tel:646062692).

Psikoterapia humanistako ikasketak dituen pertsona bat eskaintzen da, pertsona helduei laguntzeko. Prezioa hitz egin daitezke. [Tel. 649 589 213](tel:649589213). Peio.

Zerbitzari euskaldun bat behar da esperientziarekin. Interesatuok idatzi email bat: atxega@atxegajuregia.com

Estetizista bat behar da ileapaindegi batean lan egiteko. [943361971](tel:943361971)

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Neska arduratsua lan bila nabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. [618 756 934](tel:618756934)

Neska arduratsua lan bila nabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. [Tel. 631 224 621](tel:631224621) Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiket lanetan. [642 704 992](tel:642704992).

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiket lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. [Tel. 617 888 854](tel:617888854).

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. [Tel. 606 661 048](tel:606661048).

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. [Tel. 673 256 566](tel:673256566).

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiket lanak egiteko. Libre edozein momentuan hasteko moduan. [629 110 310](tel:629110310).

Etkez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. [666 798 804](tel:666798804).

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziarekin. [Tel. 667 281 660](tel:667281660).

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. [631 108 012](tel:631108012)

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. [619 355 819](tel:619355819)

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore

bezala. [619 355 819](tel:619355819)

Neska bat lan bila nabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiket. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. [Tel. 632 797 416](tel:632797416).

Senar-emazte gazte bat, lan bila nabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziarekin. [Tel. 631 916 262](tel:631916262) / [631 882 360](tel:631882360).

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. [Tel. 631 916 262](tel:631916262).

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. [Tel. 631 882 360](tel:631882360). Esperientzia zabala duen emakume eskaintzen da haurrak zain-tzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. [660 041 361](tel:660041361)

Lan bila nabil. Portalak edo etxeak garbitzen, umeak zaintzen... [Tel. 688 889 214](tel:688889214).

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. [Tel. 622 925 562](tel:622925562).

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiket lanak egiteko, goizez edo arratsaldean, abendutik aurrera. Oso arduratsua. [671 547 567](tel:671547567).

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. [Tel. 675 703 163](tel:675703163). Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiket egiteko. [Tel. 620 625 823](tel:620625823).

Emakume bat eskaintzen da asteburuetan pertsona helduak zaintzeko. [Tel. 646 756 555](tel:646756555).

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekue-tan. [Tel. 661 626 500](tel:661626500). (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. [Tel. 617 916 242](tel:617916242). (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai.



Zorionak June!

Ekainaren 6ean
10 urte borobilak,
beteko dituzu. Muxu
potolo bat, Unax,
Oihan, Anje eta
Aratzen partez.

Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jabetxe-
ren batean harraskako garbiketak
egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan
egingo nuke asteburutan. Espe-
rirentziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da pro-
paganda edo gutunak banatzeko.
Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak
zaintzeko, baserriko lanetan ari-
tzeko edota edozein lanetarako.
Interno moduan lan egiteko prest.
Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat
eskaintzen da, paper, esperientzia
eta nazionalitatearekin, adineko
pertsonek zaintzeko. 10 urteko
esperientzia sukaldar, garbiket-
tan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak
ditut. Esperientzia biltegiko lane-
tan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak
zaintzen lan egingo nuke. Or-
duka, interna edo egunean lan
egiteko. Papelekin eta erreferen-
tziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak
zaintzen lan egingo nuke. Or-
duka, interna edo egunean lan
egiteko. Papelekin eta erreferen-
tziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna
eskaintzen da pertsona helduak
zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz
dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mu-
tila, pertsona helduak zaintzeko
eskaintzen da. Interno moduan
edo nahi den bezala. Badaki
etxeko lanak egiten. 687 348
223.

Pertsona helduak zaintzen espe-
rirentzia asko duen mutil bat, lan
bila dabil. Gauetan, orduka edo
asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan,
orduka edo asteburutan lan
egiteko neska bat eskaintzen da.
Paperekin eta esperientzia asko-
rekin. Gomendio askorekin. 638
602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak

edo umeak zaintzeko. 695 602
828.

Arratsaldetan pertsona helduak
zaintzen lan egingo nuke. 30 ur-
teko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketan, plan-
txatzeko eta interna moduan
ere bai. Larunbat, igande eta jai
egunetan ere prest nago. 676
188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest
nago. Pertsona helduak gauetan
zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat es-
kaintzen da esperientziarekin.
Pertsona heldu ezinduek edo
amaieran dauden pazienteak
zaintzeko. Etxean zein egoi-
tzetan. 943 365 079 / 635 715
142.

Neska bat eskaintzen da garbi-
keta egiteko, pertsona helduak
zaintzeko... Esperientzia, errefe-
rentzia eta papela. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak
edo helduak zaintzen, etxeko la-
nak egiten... Interna moduan ere
bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan...
orduka. Gauetan pertsona hel-
duekin lo egiteko edo zaintzeko
edo konpainia egiteko prest
nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna adineko
pertsonek edo haurrek zaintzeko
prest. Klinika laguntzaile titulua-
rekin 688826968.

BESTELAKOAK

Maiatzaren 26an, 17:00ak alde-
ra Oiardo Kiroledegian Golf gris
auto bati kolpe txiki bat eman
nion. Ohar bat utzi nion. Zurea
bada jarri nirekin kontaktuan;
635 71 35 97.

Agapurni urdin bat aurkitu ge-
nuen frontoian, maiatzaren
12an. Zurea bada, deitu 609 413
883 telefono zenbakira.

Katuak oparitzen ditugu Donos-

titik elkarte. 633 273 747 /
605 730 115

Nort Face markako eta urdin
turkesa koloreko haur forro po-
lar bat galdu da. Aurkitu baduzu
deitu 678 084 020.

Quechua markako eta kolore
arroseko anorak bat galdu da.
678 084 020.

Okly markako eguzkitako be-
taurreko graduatu eta beltzak
galdu ditut, Aginagako Mapi-en
dagoen bankuaren ondoan. Aur-
kitu badituzu deitu 649 403 890

Mobilhome bat alokatzen dugu
Landetan uztaileko bigarren
hamabostaldian, uztailearen
17tik 31ra. Aste bakarrerako edo
hamabostaldirako alokatzeko
aukera. 660 057 667

Gazteentzako logela bat, berria
eta argia. Umeentzat "Maxico-
si-a" handia 9 - 15 kilo, jolastoki
bat, hamaka bat eta bidaiatzeko

sehaska bat. 673 256 566.

NOAUA!ren aurrean domina
bat aurkitu da. Galdu baduzu
NOAUA!tik pasa. Dominan Dipu-
tacion de Ciudad Real jartzen du.

Italiera klaseak eskaintzen dira.
Kontaktua: 699 609 058.

Artzai txakur bat oparitu
nuke. Baserri edo pabeloia
zaintzeko ona da. Bost urte ditu
eta beltza da. Txerto eta mi-
kro-txipa jarrita ditu. 943 365
228 / 660 093 071.

Landatan La mer kanpinean
mobil home bat saltzen da. 656
791 676.

Kalexarren, azpiko kaleko gara-
jeetan, katu txuri, marroia eta
urre kolorekoa desagertu zaigu.
2015eko iraillean jaioa. Norbai-
tek aurkitzen badu deitu: 943
371 220

Egurrarekin sua egiteko eko-
nomika berria daukagu salgai.
637974994

Borda baten bila gabiltza Usur-
bil inguruan. Gehienez 10.000
metro koadroko terrenoarekin.
Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai.
10 eurotan kilo. 657 714 355

Haur-sila bat salgai. "Bebe con-
fort" marka LA modeloa. Beltza
eta berri-berria dago. Burbuja eta
eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako so-
fak salgai, larruzkoak, egurrezko
ertzekin. Egoera onean, 500
euro negoziagarri. usurbil72@
hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634
409 888.

Denborarik ez baduzu zure mas-
kota paseatzeko, nik lagunduko
dizut. Ordubeteko ibilbideak. As-
teburutan. 688 888 176. Pablo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, pati-
neteak, liburuak... Garbigunean.
Doan hartu daitezke. Astelehe-
netik ostiralera: 10:15-13:00 /
16:00-19:00 artean. Jai egunak
ez diren larunbatetan: 9:00-
13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroledegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonika.....	1004
Noaual Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 02 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 03 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 04 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 05 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 06 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 07 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 08 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ekainak 2 - ekainak 12

Osteguna 09 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 10 GIL MARTIN Kale Nagusia, 24, beheka Lasarte

Larunbata 11 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 12 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA YURREBASO, MAITANE
Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani
943 55 77 38 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda ekaina

02 osteguna

- **Solasaldia:** "EKI proiektua DBH-n". 17:00etan Udarregiko erdiko aretoan.
- **Udajolaseko guraso bilera.** 17:00etan Sutegin.
- **Komiki erakusketaren inaugurazioa.** 18:30ean Sutegin.

03 ostirala

- **Prekarietatearen aurkako astea: auto karana.** 10:00etan Ingemar lantegitik.
- **Ikastola Egunari begirako ekitaldiak** (ikus 11. orrialdea).
- **"Ikimilikiliklik" erakusketaren irekiera.** 19:00etan Potxoenean.

04 larunbata

- **Sagarrondotik Sagardora ikastaroa** 9:00-13:00 Potxoenean.
- **Ikastola Eguna.** Egun osoko egitaraua (ikus 11. orrialdea).

Ikasle, irakasle eta gurasoen egun handia

Ingandearrekin ospatu izan da Ikastolaren Eguna. Aurten ordea, larunbatarekin antolatu dute jai nagusia. Ikasleen erakustaldi ezberdinez gozatzeko aukera izango da eguerdira bitarte. Eta ondoren, herri bazkaria egingo da. Otodurako txartelak erosteko epea maiatzaren 31n amaitu zen.

11. orrialdeko agendan ikusiko duzuen moduan, egitaraua zabalagoa da. Baina egun handia larunbatekoa izango da.

Ekainak 4, larunbata

- 09:00-12:00 LH eta DBHko ikasleen jokoak.
- 10:00 Esnadeia.
- 10:30-13:00 LH eta DBHko ikasleen

Komiki erakusketa

Sutegin

Joseba Larratxaren komiki tailerlean partehartu duten ikasleen lanak ipini dituzte Sutegin. "Lanak aste osoan zehar ikusgai izango dira. Artistak, solaskide izango ditugu bertan", ekimen honen sustatzaileek aditzera eman dituzte.



Bazkarirako txartelak erosteko epea maiatzaren 31n amaitu zen.

eskulan eta teknologia lanen erakusketa, Udarregi Ikastolako eraikin gorrian.

- 12:00 HH-koen jaialdia Oiardo Kiroldegian.
- 14:00 Herri bazkaria eta bazkalosteko girotea gurasoen eskutik.

Ikimilikiliklik erakusketa

Potxoenean

Ostiralean zabalduko dute erakusketa, arratsaldeko 19:00etan. Gainontzean hauek izango dira bisita-orduak:

Goizez, astelehenetik igandera: 12:00-14:00. Arratsaldez, asteazkenetik larunbatera: 18:00-20:00 (sarrera doan).

Datozenak

Ziortzaren kanpaldirako guraso bilera

Ziortza Gazte Elkarteak antolatu duen 2016ko kanpaldira doazen gazteen gurasoei zuzendutako bilera da. "Bertan kanpaldiko informazioa emango dugu. Oso garrantzitsua da joatea". Eguna: Ekainak 11 larunbata. Non: 11:00etan Sutegin. Deitzailea: Ziortza Guraso Elkarte.

Datorren astean, Tipi-Tapa

Ohi bezala, Aitzaga, Txirristra, Bordatxo eta Artzabal tabernetan egingo da. Ekainaren 12an igandea. Zozketa eguerdiko 15:00etan egingo da.
1. saria: 150 euroko erosketa balea.
2. saria: 2 lagunentzako afaria.

Zumartekoan ikasturte amaierako ekitaldiak

Ikasturtean ikasitakoa plazaratzeko garaia iritsi zaie Zumarte Musika Eskolako ikasleei. Ekainaren 13tik aurrera, instrumentu taldekoak oholtza gainera igoko dira.

Datorren zenbakian emango ditugu xehetasun gehiago.

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

Inaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ELORZA
OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es

BIDAIA TALDEAN

Irteera Lasarte-Oriatik

ISLANDIA



aurora borealak
· ABENDUAREN 3TIK 8RA ·



Erreserbak eta informazioa bulegoan



NOAIA BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea, 10
20160 Lasarte Oria, Gipuzkoa
T. 943 373 613
info@noaiabidaiak.com
www.noaiabidaiak.com

KALEFIT USURBILEN



**LEHEN SAIOA DOAN!
ANIMATU ZAITEZ!**

**GAITASUN FISIKO GUZTIAK HOBETZEKO
ENTRENAMENDU-PROGRAMATUAK**

ORDUTEGI AUKERAK

ASTELEHEN-ASTEAZKEN-OSTIRAL 14:30-15:30

ASTEARTE-OSTEGUN 20:00-21:00 ETA AUKERA GEHIAGO...

688 610 932
www.kalefit.com



GERTU USURBIL TXARTELA



GERTU, usurbildarron txartela

Oiardo kiroldegia, Sutegi liburutegia, Potxoenea kultur etxea, gure herriko dendak..., zerbitzu guztiak txartel bakarrean

Ekainean **% 5**
% 7

% 10 arterainoko deskontuak
Hurbilagoko dendetan

Auzo eta herri bertako zerbitzuak erabiliz,
eman bizia zure herriari!



Usurbilgo Udala

hurbilag

Usurbilgo Merkataritza eta Ostalarien Elkarteak



badabil